



Irudian, langileak Galdakaoko ospitaleko laborategi batean. EAEko Auzitegi Nagusiak BIOEF fundazioko ikerlari baten salaketa aintzat hartu du.

Behin-behineko langileen kaleratzea ez da merkeagoa izango

Urko Apaolaza Avila

@urkoapaolaza

EAEko Auzitegi Nagusiak bat egin du Europako justiziak emandako irizpideekin, eta atea ireki du kaleratutako behin-behineko langileek ere 20 eguneko kalte-ordaina jaso dezaten.

Galdakaoko ospitalean hiru urtez ikertzaile aritu zen emakume baten kasuan EAEko Auzitegi Gorenak ebatzi du 20 eguneko kalte-ordaina dagokiola lan egin zuen urte bakoitzeko. Hala, Europako Justizia Auzitegiak irailaren 14an agindutakoarekin bat egin du eta langile finkoekin alderatuta behin-behinekoekin jasaten zuten diskriminazioa -12 euro baino ez zuten kobratzen- amaitzeko bidea ireki du.

ELAk ohar bidez azaldu du epaimahaiak "langile-klasearentzako aukurarik onena" hartu duela. Sindikatuak eraman du BIOEF fundazioko langile honen kasua eta nabarmendu du sententziak ez duela bereizketarik egiten behin-behineko kontratu motaren artean, bitartekoa izan edo lan jakin baterako izan.

Garbiñe Biurrun: "12 euroko kalte-ordaineko kontratua amaitu da"

Euskadi Irratian Garbiñe Biurrun erabakia hartu duen epaimahaiko presidentek hitz egin du. Magistratuak ziurtatu du orain arte kalte-ordainik jasotzen ez zuten bitarteko langileek ere erreklamazioak egin ahal izango dituztela.

Garbiñe Biurrunek azaldu duenez, salaketa eta eskaera ugari etor daitezke hemendik aurrera eta beraiek epai berdina emango dute kasu guztietan: "Gure ustez 12 euroko kalte-ordaineko kontratu hori amaitu egin da". Baina epailearen aburuz ez da baztertu behar beste auzitegi batzuetan Estrasburgoko agindua bestela interpretatzeko aukera.

EAEko Auzitegi Nagusiaren ebazpen honi helegitea jarri diezaiokete Auzitegi Gorenean eta Gorenak urtebeteren buruan erabakiko luke. Nolanahi ere, magistratuak gogoratu duenez, bitarte horretan ebazpena bete egin beharko dute enpresek eta ezin izango dituzte langileen kaleratze merkeagoak egin.

EKONOMIAREN TALAIAN

Ez ezazu irentsi



Juan Mari Arregi

Hainbat plataforma sozialek ohar-tarazi dute zein ondorio izango dituen AEB eta EBren arteko merkataritza eta inbertsio itunaren (TTIP) negoziazioak. Munduko merkatu handiena sortuko du. Baina itun hori, CETA edo beste batzuk bezala, ez da merkatu akordio hutsa. Enpresa handiei eta transnazionaleri mesede egin eta produktore txikiak, kontsumitzaileak, merkataria eta herritarrak kaltetuko ditu. Plataforma horiek dei egin dute itunak "ez irentsera", kapitalismoaren espresioa direlako.

Testuinguru horretan ospatu zen urriaren 17an pobrezia kontrako nazioarteko eguna, eta datu larriak ezagutarazi zituzten, tartean Euskal Herrikoak, gurean pobreak egon badaudelako. EAEko eta Nafarroako pobrezia tasa %17 eta %13koa da hurrenez hurren, eta Iparraldekoaren daturik ez badugu ere, ez dirudi txikiagoa denik. EAEn 110.000 pertsonak sufritzen du pobrezia larria (%4,9), hau da, hilean 541,7 euroekin "bizi" da; populazioaren %18,5, beste 415.306 pertsona, pobrezia ez hain larrian -hilean 811,90 euroko sarrerarekin-; eta 489.477 lagun (%22,7) pobrezia eta bazterkeria arriskuan bizi da. Ozta-ozta bizi diren kopuru handiena gazteak eta emakumeak dira. Prekarietatea, murrizketa sozialak eta zerga injustizia dira arduradun. Eta bitartean, aberastasunak gutxi batzuen eskuetan pilatzen segitzen du.

TTIP eta CETA moduko itunek ugaritzen dute pobrezia eta desoreka, eta giza eskubideak urratzen dituzte. Beharrezkoa da bestelako eredu ekonomiko eta soziala, aberastasunaren bidezko banaketa egiteko, politika fiskal justua eta egokia izateko, ingurumena zainduz, genero berdintasuna errespetatuz eta bitzitza duina bermatuz pertsonentzat. Kapitalismoa ez da bidea.